



IRAGARKIA

2.009eko ekitaldiko 3.hiruhilabeteari dagokion Udal Zabor- bilketari buruzko errolda onarturik, jendaurrean jartzen da, uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauak 14.artikuluko 1.zenbakian xedatutakoa betez, hurrengo arauei jarraiki :

- a) Ikusgai dagoen lekua: Errenta eta Exakzio Bulegoa.
- b) Aztertze epea: Hilabete, datatik-datara, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta.
- c) Desadostasuna adierazteko epea: hilabetekoa, b) atalean adierazten den moduan, birjarpen errekurtsua tarteratuz.
- d) Errekurritzen zaion organoa: Gobernu Batzordea.
- e) Erreklamazioak aurkezteko tokia : Udaleko Sarrera Erregistroa , bulego orduetan.
- f) Errekurtsua jartzearen eraginak: Aipaturiko Foru Arauaren 14.artikuluko 2.zenbakian xedatutakoak.

Deba, 2.009eko urriaren 1a. Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia, alkatea.

EDIKTUA

Udalerrri honetako zergadunei jakitera ematen zaie 2009eko urriaren 1etik azaroaren 10.ra, biak barne, 2009eko 3. hiruhi-labateari dagokion Zabor-bilketari buruzko zergaren borondatezko ordainketa izango dela.

Aurtengo irailaren 15 baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean, 2009ko urriaren 20an.

Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira uztailean zehar. Ordainketa entitate laguntzaileen bidez (banku, aurreki kutxa , kreditu kooperativa eta Dirubilketako bulegoan) egin beharko da, eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko da.

Urriaren 20a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, hurrengo bulego hauetako edozeinetan eskatu beharko du Debako Zerga Bulegoa : Portu zb 1

Borondatezko kobrantza epealdia amaitu eta zergadunek zorrak ordaindu ez badituzte, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituiko dira, eta epe exekutiboko errekarquak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira.

Errezibo hauek borondatezko epean ordaindu ahal izango dira Udaletxeak beheko solairuan duen Idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 8,30etatik 13etara.

Edozein argibiderako, dei 943.60.80.39 telefonora, hau da, Udal Dirubilketa Zerbitzura.

Deba, 2.009eko urriaren 1a . Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia, alkatea.